

2023

# GIPUZKOAKO OSTATUAK

**KLIMA ALDAKETA ARINTZEN  
LAGUNTZEKO JARDUNBIDE  
EGOKIEN GIDA**



**Deustuko Unibertsitatea**

**HUB Gipuzkoa Turismoa**

Proiektuaren zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko HUBa  
Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea

Proiektua diruz lagundu du:



# AURKIBIDEA

- 01** Aurkezpena
- 03** Zero isuri garbietarako bidean
- 08** Ziurtagiriak eta jardunbide egokiak
- 27** Onurak eta oztopoak
- 29** Gomendioak
- 30** Esker ona
- 31** Eranskina

*“Turismoak «anbizio handiko bere jokalekua» definitu behar du, sektorea eraldatu eta isuri txikiko eta efizientzia handiko jarduera bihurtzeko”  
(UNWTO - Turismoaren Mundu Erakundea, 2022)*

*“Klimaren aldeko ekintza turismo sektore osoan koherentea dela ziurtatzeko, gure planetarako bost ildo komun adostu genituen: neurketa, deskarbonizazioa, biziberritzea, lankidetzeta eta finantzaketa (...). Ildo horiekin bat datozen planak prestatzeko konpromisoa hartzen dugu, hurrengo hamarkadan turismoaren karbono isuriak erdira murrizteko eta zero isuri garbietara ahalik eta azkarren iristeko, betiere 2050a baino lehen”  
(Glasgowko Adierazpena, 2021)*

# Aurkezpena

Dokumentu hau Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Turismo Graduak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Hubak elkarlanean egindako proiektuaren emaitza da. Jardunbide Egokien Gida proiektu zabalago baten barruan dago, eta haren helburu orokorra da “Klima Aldaketaren aurka borroka egiteko berariazko lan ildoak identifikatzea Gipuzkoako ostatu sektorerako, sektore horretako tipologia guztiak kontuan hartuta”.

Proiektuaren helburu orokorrarekin bat etorriz, dokumentu honek honako hauek bilatzen ditu:

- Klima aldaketaren aurkako ekintzan, ostatu sektorerako nazioarteko erreferentziatzko gidalerroak identifikatzea.
- Aitorpen handiko ziurtagiri eta ekimenei lotutako lan ildo nagusiak ezagutzea.
- Gipuzkoako ostatuaren jardunbide egokiei dagokien balioa ematea.

Beraz, gida honen helburua ez da bide orri bat zehaztea edo ekintzak agintzea, baizik eta lurraldeko ostatuaren eskura egon daitezkeen neurriak ezagutaraztea eta [Glasgowko Adierazpenarekin \(2020\)](#) eta [Garapen Jasangarrirako Helburuak \(GJH\)](#) lortzearekin bat datozen lanerako jokalekuak aztertzea. [Gaur egun, etorkizuneko jokaleku bakar batekin lan egiten da](#), jokaleku hori ez da soilik gomendatutako bide orri bat, baizik eta aurre egin behar zaion errealitate da. Ahal den neurrian, horretarako ekintza ildoak aurreratu behar ditugu, erantzunak eta erreakzioak ez ezik, aukerak ere bilatzeko, egoerari aurrea hartu eta modu proaktiboan aritzeko. Sektorea paradigma berri batean sartu da eta aukera bakarria sistemak eraldatzea da, egokitze eta arintze neurriak dira itxaropena.

Turismo industriaren barruan, ostatuak eragin mugatua du, garraioarekin alderatuta, adibidez. Hala ere, ostatu eskaintza guztia, bertsio guztietan, bisitariari bere egonaldian ahalik eta erosotasunik handiena eskaintzeko garatuta eta prestatuta dago, eta horrek energia gastu bat dakar, Berotegi Efektua eragiten duten Gasak isurtzea edo hondakinak sortzea. Azken batean, ekintza horiek eragina dute klima aldaketan. Beraz, helburua ez da alarmak sortzea edo larritasunez lan egitea, baizik eta ezer ez egitearen kostua nabarmentzea eta ‘tokian tokiko’ neurriak identifikatzea, gidalerro ‘globalekin’ bat etorriz, aurrera egiteko.



*Turismoak klima aldaketa eragiten du eta, aldi berean, klima aldaketaren eragina jasaten du. Horregatik, sektoreari interesatzen zaio protagonista izatea klima aldaketari eman behar zaion erantzun globalean. Energia kontsumoa murriztuz eta iturri berriztagarriak erabiliz, bereziki garraioaren sektorean eta ostatuarenean, turismoak gure garaiko erronkarik premiazkoenetako bati aurre egiten lagun dezake (UNWTO)*

# Glasgowko Adierazpena

Glasgowko Adierazpena, COP26-Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen 2021eko Konferentzian aurkeztu zena, hainbat erakunderen lankidetzaren emaitza da, One Planet Turismo Jasangarriko Programaren barruan: Turismoaren Mundu Erakundea (UNWTO), Nazio Batuen Ingurumen Programa (PNUMA), Visit Scotland, Travel Foundation eta Tourism Declares a Climate Emergency. Gaur egun, sektoreko 450 erakundek baino gehiagok sinatu dute adierazpen hori eta haren helburu nagusia da turismoaren sektorean klimari lotutako ekintza bizkortu beharraren premia azpimarratzea, "asmo handiagoko sektore ikuspegia emanaz, turismoak klimari lotutako ekintza modu esanguratsuan bizkortuko duela bermatzeko", bost konpromiso irmoren bidez (UNWTO, 2021):

**2050**

## **01. konpromisoa**

2030erako isuriak erdira murrizteko eta zero isuri garbien konpromisoa ahalik eta azkarren eta betiere 2050a baino lehen lortzeko mundu mailako konpromisoa babestea.

**12  
hilabete**

## **02. konpromisoa**

Klimari lotutako ekintza planak aurkeztea (edo dauden planak eguneratzea) adierazpena sinatu eta 12 hilabeteko epean, eta plan horiek praktikara eramatea.

**5 ildo**

## **03. konpromisoa**

Planak Adierazpenaren bost ildoekin lerrokatzea: neurketa, deskarbonizazioa, biziberritzea, lankidetzeta eta finantzaketa, turismo jardueran klimari lotutako ekintza bizkortzeko eta koordinatzeko.

**Berri  
ematea**

## **04. konpromisoa**

Epe ertain eta luzeko helburuei dagokienez, lortutako aurrerapenen eta hartutako neurrien berri jendaurrean ematea, urtero.

**Elkarlana**

## **05. konpromisoa**

Elkarlanerako espirituarekin lan egitea, jardunbide egokiak eta irtenbideak trukatzuz, informazioa zabalduz erakunde berriek adierazpena sina dezaten, eta elkarri lagunduz, helburuak lehenbailehen lortzeko.



**Glasgow Declaration**  
Climate Action in Tourism

# Zero isuri garbietarako bidean

Azken 50 urteetan, Gipuzkoako tenperatura 1,2° C igo da eta 30 egun bero gehiago ditu urtean, hau da, uda hilabete luzatu da. Etorkizuneko proiektzioek adierazten dute neguko tenperatura minimoak eta udako maximoak igo egingo direla, euriak jaitsi egingo direla (% 15-20 inguru) eta uraren tenperatura eta itsasoaren maila igo egingo direla. Horrek zuzeneko eragina du bizimoduetan, ekosistema kalteberetan, biodibertsitatearen galeran eta “erakargarri turistiko” deitutakoen eredu aldaketan. Adibidez, tenperatura 3 eta 4° C artean igo daiteke eta itsasoaren maila, 50 eta 70 cm artean. Horrek Gipuzkoako hondartzen herena desagertzea ekarriko luke (Naturklima, 2021, 2022:7).

Historikoki, turismoa sektore garrantzitsua izan da Gipuzkoako lurraldean, batez ere kostaldean. Arrakasta hori hainbat faktorek eragin dute, besteak beste, helmuga turistikoaren edertasunak, kulturaren edo paisaiaren interesak edo zerbitzuek. Hala ere, klimaren ezaugarriek eta segurtasunak ere zuzeneko eragina izan dezakete fluxuen birbanaketan edo helmuga bateko garapen turistikoko ereduetan. Azken urteotan, Gipuzkoak ikusi du turismoak pisu eta protagonismo handiagoa hartu duela. Zehazki, sarrerak, gaualdiak eta bisitarien gastuak hazi egin dira, eta, horren ondorioz, enpleguak eta turismo eskaintzak ere gora egin dute. Gipuzkoako ostatu sektorean, hotelen kopurua % 30 igo da 2011z geroztik, eta hotel, landa ostatu eta apartamentuek eskaintako plazak neurtzen direnetik (2016), plaza horiek % 22 igo dira. Hala, gaur egun ia 600.000 ohe izatera iritsi gara (Eustat, 2023).

2018an, turismoak isuri globalen % 8 eragin zituen eta ehuneko horretatik, % 6 zegoien ostatuari (Lenzen et al., 2018). Azterlan berriagoek kalkula dute isuri zuzenak eta kontrolagarriak (1 eta 2 irismenekoak) urtean 274 Mt CO<sub>2</sub> baliokide direla, hau da, 12,5 bilioi zuhaitz, konpentsazio neurrietan adierazita.

Ostatuen sektoreak isuriak 17 Mt CO<sub>2</sub> baliokide murriztu behar ditu urteko, eta horrek egungo mailen % 6tik % 7ra arteko urteko murrizketa tasa ekarriko luke, 2050erako zero isuri garbi lortzeko. Hori 2,3 milioi etxeetako isuri guztiak ezabatzearen baliokidea da. Beraz, balio horiek kontrolatzeko ahalegina modu esponenzialean handitu behar da.

Ostatuen sektoreak badu isuriak nabarmen murrizteko gaitasuna, baliabide naturalen erabilera murrizteko eta hondakinak ezabatzeko deskarbonizazio neurriak aplikatuta (EY Parthenon, Booking eta OC & C, 2021).

**Zero isuri garbiak karbono neutraltasuna baino urrunago doaz, terminoa 1, 2 eta 3 irismeneko isuri guztiei aplikatzen baitzaie.**

**Jardunbide egokietan, zero isuri garbi lortzeak (SBTiren definizioaren arabera) isuri murrizketa egingarri handiena adierazten du (isuri irismen guztietan, % 90eko murrizketa fisiko absolutua, beranduenez 2050erako, sektore arteko bidetik). Helburu hori lerrotatuta dago zientzian oinarritutako 1,5 °C-ko helburuarekin.**

**Berotegi efektuko gainerako gasak ezabatzea ere hartzen du barne, karbonoa xurgatzearen bidez.**

**Kompentsazioa subsidiarioa izanik ere, benetako murrizketaren osagarri izan behar du**

1. irismena - Zuzeneko isuriak: natur baliabideen kontsumoa tokian bertan (adibidez, galdara baten kontsumoa);
2. irismena - Zeharkako isuriak: erositako energiaren kontsumoa (adibidez, argiztapena, kontsumitutako elektrizitatea);
3. irismena - Kontrolatu ezin diren zeharkako isuriak: balio katearen inputak (adibidez, elikagaiak).

Pandemiaren aurretik, Sustainable Hospitality Alliance ekimenak, Greenviewrekin lankidetzan, Global Hotel Decarbonisation Report (2017) txostena argitaratu zuen, isuriak murrizteko moduan paradigma aldaketaren ageriko beharri erantzuteko. Orduan, hiru lan ildo identifikatu ziren: “efizienteagoa, berriztagarriagoa eta elektrifikatuagoa”.

[1] Ekipoen eta eragiketen efizientzia handitzea, jardunbide operatibo berrien bidez. Berrikuntza ugari ahalbidetu dute efizientzia hobetzea, batez ere, energiari dagokionez. Horixe da, hain zuzen ere, hoteletako karbono isuriak murrizteko oinarrietako bat, hainbat bidetatik:

- Efizientzia handiagoa HVAC deitutakoan (H heating, berokuntza; V ventilating, aireztapena; eta AC air conditioned, aire girotua) edo argiztapen efizientea, LED bonbillak erabilia.
- Ostatu hartzaile efizienteagoa heztea.
- Efizientzia berria, teknologia, sentsore eta abarren bidez.
- Karbonoaren efizientzia, karbonoa murrizteko potentzialaren arabera.

[2] Energia berriztagarrien erabilera bizkortzea, orain arte hutsaren hurrengo, sare elektrikoaren deskarbonizazioa lehenetsiz:

- Sare elektrikoaren trantsizioa energia berriztagarrietara.
- Tokian bertan berriztagarriak erabiltzea, elektrizitatea sortzeko eta klimatizaziorako, energia eolikoa, eguzki energia, geotermia edo bioerregaiak erabiliz (1. irismenekoak).
- Kanpoko zerbitzuei laguntzea energia berriztagarrietarako trantsizio horretarako.

[3] “Elektrifikazioa” handitzea, funtsezkoa baita “zero isuri garbiko eraikinetarako”:

- ekipoak elektrifikatzean
- elektrizitatea biltegitratzean oinarrituta, bateria bideragarri eta eskalagarriekin, eta energia berriztagarriak erabiliz. Hotel berriek zero isuri garbi eduki beharko dituzte.

### **\*\*ZIENTZIAN OINARRITUTAKO HELBURUAK (SBTi)**

*Zientzian Oinarritutako Helburuak ekimena, ingelesezko SBTi (Science Based Targets initiative) izenaz ezaguna, 2015ean sortu zen, lau erakunderen elkarlanetik: CDP (Carbon Disclosure Project), Nazio Batuen Munduko Ituna, Baliabideen Munduko Institutua (WRI) eta Naturarentzako Mundu Funtza (WWF).*

*Ekimenaren helburu nagusia da jardunbide onenak definitzea eta sustatzea, sektoreen artean eta sektoreen arabera (adibidez, hegazkingintza), isuriak murrizteko eta “0 isuri garbiko” helburuak ezartzeko, klimari buruzko zientziarekin bat etorritik, betiere printzipio zientifikoak eta Pariseko Hitzarmena (UN Climate Change, 2015) kontuan hartuta.*

*Orduz geroztik, 1.000 enpresa baino gehiagok bat egin dute ekimenarekin. Ekimenaren arabera, 2030erako isuriak erdira murrizteko eta 2050erako zero izateko, urtean %4,2ko murrizketa lortu behar da.*

COVID-19ak sektorearen erresilientzia erabiltzea eskatu zuen, baina, horrekin batera, isuriak murriztu zituen eta airearen kalitatea edo biodibertsitatea hobetu zituen. Klimari lotuta, ordurako abian jarri zen lana indartzeko beharra erakutsi zuen.

COVID-19a gainditzeko bidean ginela, “One Planet vision for a responsible recovery of the tourism sector” dokumentuak eraldaketarako hainbat neurri proposatu zituen (UNWTO, 2020):

- turismo sektoreko eragiketen CO2 isuriak monitorizatzea eta horren berri ematea
- deskarbonizazio prozesuak bizkortzea, arintze neurriak indartuta.
- turismo sektorea inplikatzeko klima aldaketara egokitzeko eta karbonoa ezabatze konpromisoa har dezan, metodo naturalak eta teknologikoak erabilia.



"Global Accommodation Sector. The Road to NET zero emissions" txostenak (EY Parthenon, Booking eta OC&C, 2021), ostatuaren sektorearen azterketa global batetik abiatuta, funtsezko lau elementu identifikatzen ditu zero isuri garbietarako trantsiziorako:

[1]Ostatuek natur baliabideen erabilerearen efizientzia hobetzea. Gaur egun, karbonoa aurrezteko hainbat neurri daude, natur baliabideen erabilera murrizteko eta hondakinak ezabatzeko. Neurri horiekin, ostatu batek % 32raino murriztu ditzake berotegi efektuko gasen isuriak (jatorrizkoak). Neurriok, gainera, eragin ekonomiko positiboa dute, errentagarritasunari dagokionez.

[2]Ostatu hartzaileen eta ostatuetak langileen artean, portaera jasangarriagoa sustatzea. Ostatu askok parte hartzen dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, jasangarritasunari lotutako ekimenetan. Karbonoa aurrezteko neurriak hartu dituzte dagoeneko ostatuaren % 30-% 70ek. Neurri horien ondorioz, urtean 39 milioi tona CO2 baliokide murriztu dira.

[3]Energia berriztagarriak erabiltzeko trantsizioa sustatzea. Ostatuak, oraindik ere, gaur egungo isurietan % 15- % 20ra arteko murrizketa gehigarria lor dezakete, urtean 48 Mt CO2 baliokide inguru. Hondar murrizketa horren potentzialaren zatirik handiena soilik hiru ekimen aplikatzearekin lotzen da: energia ikuspegitik efizienteak diren berokuntza, aireztapen eta aire girotuko sistemak (HVAC); ostatu osoan energiaren ikuspegitik efizienteak diren etxetresna elektrikoak; eta kristal bikoitza instalatzea. Potentzialari dagokionez, desbideratzeak egon badaitezke ere, ostatuak zero isuri garbi bilatzeko ekimen guztiak sakonago lantzea izan beharko lukete helburu. Pauso txikiak ematea ezer ez egitea baino hobea da.

[4]Berotegi efektuko gasen gainerako isuriak berriztagarriekin konpentsatzea. Gas isuriak murrizteko gaur egun eskuragarri dauden teknologia guztiak aplikatuta ere, berotegi efektuko gas horien isuriek esanguratsuak izaten jarraitzen dute. Portaerak aldatuz, energiaren ekoizpena ekologizatuz eta, elektrifikatzeko aukerarik ez badago, karbonoa konpentsatuz egin beharko litzaieke aurre.

**Turismoaren eta bidaien industria, bere aniztasun eta heterogeneotasunagatik, isurien iturri oso garrantzitsua da eta, gainera, aurreikuspenek hutsik egiten ez badute, oraindik ere hazten jarraituko du. Ostatuaren sektorea ez da premiazko neurriak hartzeko beharrezko salbuespen bat.**

Azterlana, gaiari buruzko azken ikerketa zientifikoak errespetatzeaz gainera, 2021eko bigarren erdian bildutako lehen mailako datuetan oinarritzen da. Datu horiek ostatuaren mundu mailako sektorearen adierazgarri dira, bai herrialdeei dagokienez eta bai ostatu motei dagokienez. Horretarako, 40 elkarrizketa baino gehiago egin ziren hornitzaileekin, ekimen horien gaur egungo kokapena eta aplikatzeko oztopo nagusiak identifikatzeko.



**NET ZERO**

Berariaz klima aldaketari buruzkoa ez bada ere, Espainia mailan Hotelen Institutu Teknologikoak, CEHATEkin elkarlanean, turismo sektorerako egin duen azterlana aipatu behar da, jasangarritasunari lotutako jardunbide egokiak biltzen dituen: Estudio de Buenas Prácticas en Sostenibilidad para el Sector Turístico.

Proposamen honek balio erantsi bat du: aurkezten diren ekimenak edozein erakundek ezar ditzake, berdin dio zein den haren tamaina, kokapena eta jarduera. Azterlan honetarako, oso ekimen zehatzak direnez eta Espainian jarduten duten hotelei begirakoak, ekintzak bi parametro motaren arabera banatzen dira:

- Hotelaren barruko aplikazio saila edo arloa: mantentze lanak, lorezaintza, garbiketa eta garbitegia, sukaldea eta jatetxea, harrera eta bulego nagusiak (horren barne administrazio arloak ere hartuta, besteak beste, erosketak, salmentak eta marketina, administrazioa, giza baliabideak, finantzak, etab.) eta azken atala, orokorra, “erakunde osoa” deitutakoa.
- Lantzen duten jasangarritasun alderdiaren arabera, honakoak identifikatzen dira:
  - Ingurumen jasangarritasunari lotutako alderdiak: energia, erregaiak, ura, hondakinak, argiztapena eta zarata.
  - Gizarte[i1] jasangarritasunari lotutako alderdiak: tokian tokiko kulturari laguntzea, lan duina, parte hartzea, gizarte ekintzak eta gardentasun korporatiboa.
  - Ekonomia jasangarritasunari lotutako alderdiak: hornidura katea, tokian tokiko ekonomia bultzatzea eta kudeaketa sistemak.

Lan horretan agertzen diren neurri ugarien artean batzuk aipatzearren, adibidez (ITH, 2023):

- Lan horretan agertzen diren neurri ugarien artean batzuk aipatzearren:
- Bezeroak eta langileak informatzeko, hezteko eta sentsibilizatzeko ekintzak.
- Jasangarritasunari buruzko txostenak eta/edo memoriak argitaratzea eta zabaltzea.
- Karbono aztarna kalkulatzeko, berotegi efektuko gasen isuriak kuantifikatzeko, jatorriaren arabera sailkatzeko eta CO2 unitate baliokideetan adierazteko. Kalkulu horri esker, isuriak murrizteko, minimizatzeko eta konpentsatzeko estrategiak planteatu daitezke.
- Hondakinen kudeaketa integraleko sistemak.
- Autokontsumorako energia iturri berriztagarriak erabiltzea, berotegi efektuko gasen isuriak modu aktiboan gutxitzeko eta, aldi berean, energia efizientzia nabarmen hobetzeko.
- Mugikortasun jasangarriko ekimenak garatzea, bai langileekin eta bai ostatu hartzaileekin.
- Erabiltzen diren ekipoak aldatzen joatea efizientzia handiagoko edo A energia etiketako beste ekipo batzuekin, ingurumeneko eraginaz gainera, epe ertain eta luzeko kostu ekonomikoak ere gutxitzeko.
- Bioklimatizazioa eta/edo landare estalkiak jartzea, ohiko hozte sistemen alternatiba gisa, inguruko tenperatuak jaisteko eta airearen kalitateari eusteko, etengabeko aireztapenari esker.
- Komunetan kontsumo txikiko sistemak jartzea, uraren aztarna neurtzean oinarrituta, baliabideen erabilerekin efizientzia ebaluatzeko eta, horrela, pausoz pauso erabilera hori gutxitzeko jarduerak mekanismoak erabakitzeak.
- Gela edo eremu bakoitzeko banakako kontagailuak instalatzea, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.
- Tokian tokiko produktuak eta jarduerak eskaintzea.
- Eskuoihalak eta maindireak ostatu hartzailearen eskariaren arabera aldatzea.
- Klimatizazio sistemetak eta beste sistema batzuetako ura berriro zirkulazioan jartzea eta berrerabiltzea.
- Hezetan eta euri sentsoreak instalatzea eta ureztatze orduak arrazionalizatzea.
- Bigarren eskuko altzariak erabiltzea (berrerabiltzea), ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatuta.
- Hurbiltasuneko eta garaian garaiko produktuak erostea.
- Argiztapen adimenduna, sentsoreen bidez.

Envisioning Tourism in 2030 and Beyond txostenak (Peeters & Papp, 2023) etorkizuneko hainbat jokaleku aztertzen ditu eta horietako bakoitzean turismo sektorearen isurien inguruko 40 esku hartzek izango luketen eragina zehazten du. Turismoan Klimaren aldeko Ekintzari buruzko Glasgowko Adierazpena oinarri hartuta, 2050ean zero isuri garbiko helburua lortuko lukeen sektorearen ikuspegia eskaintzen du.

Dokumentuak, hasieran, orain arteko esku hartzeen eragina ebaluatzen du. Ostatuari dagokienez, hauek dira ondorio nagusiak:

- karbonoaren konpentsazioa ez da nahikoa
- elektrifikazioa eta energiaren efizientzia beranduegi datoz
- eta araudiak eta zergek gas isurien hazkundera aldi baterako murriztuko dute, baina ez dute zerora eramango.

Hori ikusirik, Turismoa Deskarbonizatzeko Jokaleku bat (Tourims Decarbonisation Scenario, TDS) identifikatzen du, baina, horretara iristeko, inbertsio nabarmena egin behar da deskarbonizazio neurrietan. Jokaleku hori lortzeko, ostatuen sektorerako hainbat esku hartze proposatzen dira:

## 2030

Ostatuen % 83 elektrikoak izango dira, 2019ko % 50etik abiatuta. Horrek eskatzen du sareko azpiegiturretan inbertsio handiak egitea. Sarearen elektrizitate globalaren % 33 dator iturri berriztagarrietatik.

Ostatua 2019an baino % 12 efizienteagoa izango da, energiari dagokionez, eraikinetan eta eragiketetan energia aurrezteko hainbat ekimen jarriko baitira abian.

Gero eta egonaldi laburragoetarako joera gerarazteak ostatuen sektoreari mesede egingo dio: helburua bidaia bakoitzeko 3,95 gauetako egonaldia lortzea da batez beste, 2019an 3,70ekoa izanik.

Ereduaren barne ez badago ere, ostatuek 3. irismeneko isuriak (hornidura kateko eraginak) ere murriztu behar dituzte, 1. eta 2. irismenekoak murrizteaz gainera.


## 2050

Ostatuen % 99 elektrikoak izango dira, eta berriztagarrietatik datozen isuriak ia zero izango dira.

Ostatua, energiari dagokionez, 2019an baino % 47 efizienteagoa izango da.

Bidaia bakoitzeko batez besteko iraupena 3,73 gauetakoa da, 2019ko erreferentzian 3,37koa bazen ere.

Ereduaren barne ez badago ere, ostatuek 3. irismeneko isuriak (hornidura kateko eraginak) ere murriztu behar dituzte, 1. eta 2. irismenekoak murrizteaz gainera.




# Akreditazioak eta jardunbide egokiak

Ingurumen edo ekologiako ziurtagiriak, kudeaketa sistemak eta akreditazioak ebaluazio erakundeek ematen dituzte eta ziurtatzen dute produktu, zerbitzu, prozesu edo kudeaketa sistema jakin batzuk ingurumenarekiko errespetuz edo dagokion ingurumen araudiaren arabera egin direla.

Gaur egun, balioespen eta kalifikazioko mekanismo eta tresna ezagunenak eta erabilienak borondatezkoak dira, baina 2021az geroztik indarrean da 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketari eta energia trantsizioari buruzkoa. Lege horren helburua da Pariseko Akordioan (2015) adostutako helburuak beteko direla ziurtatzea; Espainiako ekonomia deskarbonizatzen eta eredu zirkularra igarotzen laguntzea, baliabideen erabilera arrazionala eta solidarioa bermatzeko; eta klima aldaketaren eraginetara egokitzea eta garapen jasangarriko helburu bat ezartzea sustatzea, enplegu duina sortuko duena eta desberdintasunak murrizten lagunduko duena.

Motibazioak asko eta askotarikoak izan daitezke, baina etiketa, zigilu edo ziurtagiri horiek, eredu edo filosofia jasangarri bati erantzuteaz gainera, enpresa gizarte eta ingurumenaren ikuspegitik arduratsua dela erakusten dute, lehiakideengandik bereizten dute, eta haren irudia modu positiboan indartzen dute, interes talde desberdinen aurrean, besteak beste, bezeroak eta kontsumitzaileak eta, horiekin batera, langileak, tokiko komunitatea edo hornitzaileak.



# BIOSPHERE RESPONSIBLE TOURISM ESTANDARRA

Biosphere Turismo Arduratsuko Institutuaren (ITR) jasangarritasuna kudeatzeko eta aitortzeko nazioarteko sistema da.

Biosphere Sustainable metodologia jasangarritasuneko estandarrak modu jarraituan kudeatzeko eta aitortzeko tresna bat da, sistema bideragarri eta eskalagarri bat erabiltzen duena. Tresna horrek entitate bakoitzaren helburu eta lehentasun nagusiak definitzen ditu eta plan pertsonalizatu bat egiten du, Nazio Batuen Erakundeko Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta.

Biosphere Sustainablearen ziurtagiriak helmuga turistikoentzat eta enpresentzat dira. Azken horien barne, turismo industriarekin zuzenean edo zeharka harremana duten guztiak sartzen dira, bi multzotan bereizita: banakakoak alde batetik eta kateak eta taldeak, bestetik. Entitatearen tipologiaren eta errealitate turistikoaren arabera aplikatuko da dagokion Biosphere Responsible Tourism estandarra.

Ziurtagiria lortzeko zehaztutako irizpideen artean, bi mota bereizten dira:

- Nahitaezko irizpideak: ziurtagiria eskuratzeko beharrezkoak.
- Hautazko irizpideak: ziurtagiria berritzeko prozesuan betetzen joan behar dira, etengabeko hobekuntzaren filosofia kontuan hartuta. Gainera, nahitaezko irizpideak ere etengabeko hobekuntzaren filosofiarekin landu daitezke.

Kudeaketa sistema honen bidez ziurtagiria eskuratzeko, entitateari aplikagarri zaizkion nahitaezko eskakizunak bete behar dira gutxienez. Eskakizun horien ebidentziak erakutsi beharko dira.

ITRk uste du ziurtagiria ez dela azken helburua, baizik eta turismoaren jasangarritasunerako bidea. Hortaz, nahitaezko eskakizunak beteta, etengabeko hobekuntza bilatzen da, urteko ekintza plana zehaztu eta aplikatuta, beti ere entitate motaren, baliabideen eta idiosinkrasiaren arabera.

**Erakunde arduraduna:** Turismo Arduratsuko Institutua-Responsible Tourism Institute.

**Esparrua:** Nazioartekoa.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Ez, turismo arloko enpresak, bi multzotan bereizita: banakakoak alde batetik eta kateak eta taldeak, bestetik.

**Ziurtagiria:** Biosphere ziurtagiria.

**Berrikustea:** Urteko berrikustea, kanpoko ikuskaritza prozesuen bidez.

**Kostua:** Bai, aplikazio prozesuetarako sarbide mugatua. Helmugak ziurtagiria badu, lehen urtean enpresei ziurtagiri horretan sartzeko aukera ematen zaie, doan.

**Prozesua:** Banaka aplikatzen da, Ordezkaritza baten bidez, kasu honetan, Espainiakoa.

**Adierazle sistemaren laburpena:** 7 lan eremu, guztira 31 ezaugarriekin. Metodologia Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan oinarritzen da eta enpresak horietako bakoitzari egiten dion ekarpena neurtzen da. Azterketatik abiatuta, enpresa bakoitzerako katalogo pertsonalizatua zehazten da.



BIOSPHERE

Ziurtagiri honetan interesgarriena da Biosphere Ezaugarriak komunikatzeko erabiltzen den sistema, aukera ematen baitu zure kontsumo erabakietan garrantzitsuak diren elementuak dituzten entitateak ikonoen bidez identifikatzeko. Gainera, Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuei dagokienez, entitateak zenbat helbururi egiten dion ekarpena aztertu eta modu bisualean erakusten du.

<p><b>ELIKAGAIK ETA EDARIAK (6)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 0 Km-ko elikagaiak lehenesten eta erabiltzen dituzte sukaldaritza eskaintzan.</li> <li>• Elikagai ekologikoak erabiltzen dituzte gastronomia eskaintzan.</li> <li>• Barazkijaleentzako elikadura aukerak badituzte.</li> <li>• Elaborazio gastronomiko % 100 beganoak dituzte.</li> <li>• Beren baratze ekologikoa dute, sukaldeko elaborazioetan erabiltzen dituzten elikagaiak hartzen dituzte bertatik.</li> <li>• Elikagaien eta edarien eskaintzan, tokiko gastronomiako jaki tipikoak sartzen dituzte.</li> </ul>
<p><b>KLIMA ALDAKETA (4)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Instalazioetan energia berriztagarriak erabiltzen dituzte.</li> <li>• Urteko karbono aztarna zuzeneko eragina duten ekimenekin eta jardunbide egokiekin konpentsatzen dute.</li> <li>• Ostatu hartzaileek logelako energia kontsumoa kontrolatu eta murriztu ahal izateko mekanismoak dituzte.</li> <li>• Ekoizpen jardueraren energia kontsumoa minimizatzeko instalazioak eta domotika dituzte.</li> <li>• Instalazioetan berdeguneak daude, beroaren eragina murrizteko eta/edo bertako landareekin.</li> </ul>
<p><b>EKO ETA INGURUMENA (5)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Instalazio guztietan birziklatzea ahalbidetzen dute. Erabilera bakarrek plastikoa ezabatuta dute jarduera osoan.</li> <li>• Amenitiek, ehun materialek eta/edo bezeroei eskainitako beste elementuek eco-friendly irizpideak jarraitzen dituzte.</li> <li>• Bezeroak gela eta eskuoihalak garbitzeko programa berdeak eska ditzakete, ECO neurri gisa.</li> <li>• Enpresak ingurumenaren, landarediaren eta ekosistemen aldeko proiektuetan parte hartzen du eta/edo horrelako proiektuak sustatzen ditu.</li> <li>• Enpresak animaliak zaindu, kontserbatu eta berreskuratzearen aldeko ekimenetan parte hartzen du eta/edo horrelako ekimenak sustatzen ditu.</li> </ul>
<p><b>PENTSATU GLOBALKI, EKIN TOKIAN BERTAN (4)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresak tokiko ekonomia sustatzen du, tokiko enpresa txiki eta ertainei eta/edo horien produktu eta zerbitzuei lagunduta.</li> <li>• Kalitatezko tokiko enplegua sortzen du, bertako langileak kontratatuz.</li> <li>• Bere eskaintzan tokiko zerbitzuak eta produktuak aurkituko dituzu.</li> <li>• Ongizate Estatuaren aldeko proiektu solidarioetan parte hartzen eta laguntzen dute eta/edo proiektu horiek bideratzen dituzte, gizarte xedea duten ekimenen bidez.</li> </ul>
<p><b>BENETAKO ENTRETENIMENDUA (1)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko kulturari lotutako ekitaldiak eta/edo ikuskizunak antolatzen dituzte: artea, musika, dantza, artisautza, besteak beste. Tour + jasangarriak dituzte, gizarte inguruneari eta ingurumenari lotutako jasangarritasun irizpideen arabera antolatutakoak.</li> </ul>
<p><b>MUGIKORTASUNA (3)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Transferrak eta/edo car sharinga eskaintzen dute bezeroen/langileen taldeko joan-etorrietarako, kutsadura gutxiago sortzeko. Bizikletentzako aparkaleku bat dute instalazioetan bertan, bezeroek eta langileek erabiltzeko.</li> <li>• Bizikleta eta/edo patinete elektrikoek flota bat dute bezeroei eskaintzeko, mugikortasun ECO gisa.</li> <li>• Ibilgailu elektrikoentzako karga puntuak dituzte beren instalazioetan eta/edo 300 metro baino gutxiagora.</li> </ul>
<p><b>IRISGARRITASUNA (3)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugikortasun mugatuko pertsonentzat egokitutako instalazioa dituzte.</li> <li>• Informazio elementuak eta objektuak Braille hizkuntzan ere eskaintzen dira, ikusmen premia bereziak dituzten erabiltzaileentzat.</li> <li>• Ulermena errazteko ikusizko baliabide grafikoak ematen dira. IRISGARRITASUNA, MUGIKORTASUNA soinu/audioko deskribapeneko laguntza eta euskarri elementuak dituzte, ikusizko edukiak irisgarri egiteko.</li> </ul>



# EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA

Europako etiketa ekologikoa (EEE), Ecolabel izenaz ezagutzen dena, erakunde independente batek ziurtatutako eta Europa osoan berमतुतako ingurumen kalitatearen ikur bakarra da. 1992an, Europar Batasunak Etiketa Ekologikoaren borondatezko sistema sortu zuen. Hasieran, sistema horren aplikazio eremua produktueta mugatzen zen (gaur egun, 23 produktu multzo daude guztira). 2000. urtean, zerbitzuetara zabaldu zen.

Etiketa horren bidez, ingurumenean eragin kaltegarriak murriztu ditzaketen produktuak edo zerbitzuak sustatu nahi dira, baliabideen erabilera eraginkorra eta ingurumenaren babes maila handia lortzeko. Análisi tresnak negozioaren ahultasun ekologikoak eta ekonomikoak identifikatzen eta horiei aurre egiten laguntzen du, eta uraren eta energiaren kontsumoa murriztearekin batera, adibidez, etekin ekonomikoa eta ekologikoa lortzen da.

Beste hainbat abantailaren artean, honako hauek identifikatzen dira: ingurumenaren eta norberaren osasuna hobetzen laguntzen du; ingurumen eskakizunak betetzen dituzten zentroen eskari turistikoa handitzen du; ingurumenarekiko errespetua eta aurrezki ekonomikoa ahalbidetzen ditu, ekoefizientziako alderdiak hartzen baititu kontuan (gehiago ekoiztea baliabide gutxiagorekin); esparru horretan lege eskakizunak betetzea errazten du, ingurumeneko administrazioaren laguntza baitu; hirugarrenek ziurtatutako ingurumenaren kudeaketako sistemak ezartzeko abiapuntua da eta bide hori errazten du, esate baterako, EMAS Erregelamenduari eta ISO 14001 ziurtagiriari dagokionez; marketineko elementu bat da, enpresaren irudia hobetzen du, etiketa bera publizitatean txerta daitekeelako: liburuxkak, prospektuak, txartelak, webgunea...; bezeroen igurikimenekin bat dator, ingurumenarekiko konpromisoa erakusten duelako; eta, gainera, ongizate sentsazioa eragiten du.

**Erakunde arduraduna:** Europako Batzordea.

**Esparrua:** Europar Batasuna, Norvegia, Liechtenstein eta Islandia.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Bai, Turismo Ostatu Zerbitzuak (EBAO L 102, 2003-04-24koa).

**Ziurtagiria:** Etiketa ekologikoaren katalogoan (ECAT) erregistratzea. Hirugarrenek ziurtatzen dituzten ingurumen kudeaketako sistemak -horien artean, EMAS Erregelamendua eta ISO 14001 eta ISO 14024, Ekoetiketei dagokiena- ezartzeko abiapuntua da eta horretan laguntzen du.

**Berrikustea:** Etengabeko kontrola IHOBEn bidez.

**Kostua:** Eskabide kanona (T 230: 500 €) eta lizentzia erabiltzeagatiko kanona (T 231, gutxienez 100 €, urteko salmenten bolumenean oinarrituta. Bolumen hori kalkulatzeko ostatuaren prezioa eta okupazio gauen kopurua biderkatuko dira eta emaitza horren erdia hartuko da). EBko etiketa ekologikoa emateko, zabaltzeko eta berritzeko eskaera bakoitzeko 306 euroko kuota ordaintzea eskatuko da. ETEek eta mikro ETEek (2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/CE Gomendia), 200 eurokoa kuota ordaindu beharko dute.

**Prozesua:** Espainian, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak bultzatzen du, autonomia erkidegoen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak kudeatzen du, IHOBEn bidez.

**Adierazle sistemaren laburpena:** 6 arlotan banatuta, nahitaezko 37 irizpide eta aukerako 47 irizpide bete behar dira, eta horietan gutxieneko puntuazioa lortu behar da. Kopuru horiek ostatuak eskaintzen dituen zerbitzuen arabera alda daitezke (adibidez, nahitaezko 22 irizpide eta aukerako 45).





Turismo ostatueta ekoetiketa lortzeko, hainbat irizpide bete behar dira, eta dagozkien bitartekoen bidez egiaztatu behar dira. Zehazki, irizpide hauek bete behar dira:


- Nahitaezko irizpideak (37): guztiak bete behar dira, establezimenduari aplikatzekoak badira (ikus taula).
- Aukerako irizpideak (47): gutxienez 16,5 puntu lortu behar dira 77tik. Gainera, irizpideen zerrenda bat proposatzen da, aurretiko autoebaluazioa egiteko.

ENERGIA (10)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatea.</li> <li>• Erregaien sufre edukia.</li> <li>• Energia iturri berriztagarrietatik sortutako berokuntza elektrizitatea.</li> <li>• Galdararen errendimendu egokia.</li> <li>• Aire girotu efizientea.</li> <li>• Leihoen isolamendu termino eta akustikoa.</li> <li>• Berokuntzaren eta aire girotuaren deskonexioa.</li> <li>• Argien deskonexioa.</li> <li>• Saunetako aginte tenporizadorea.</li> </ul>
URA (10)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iturri jasangarrietatik datorren ura.</li> <li>• Txorrotetako eta dutxetako ur emaria.</li> <li>• Ura aurrezteko bainugeletan eta komunetan.</li> <li>• Paperontziak komunetan.</li> <li>• Zisternen erabilera pixatokitetan.</li> <li>• Ihesak identifikatzea.</li> <li>• Eskuoihalak eta maindireak aldatzea.</li> <li>• Landareak eta lorategiak ureztatze orduetara.</li> <li>• Hondakin uren tratamendua.</li> <li>• Hondakin irten plana. NAHITAEZKOA.</li> </ul>
DETERGENTEAK/ DESINFEKTAITEAK/ PRODUKTU KIMIKO ARRISKUTSUAK (2)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Desinfektatzaileen erabilera</li> <li>• Langileei detergenteak eta desinfektatzaileak erabiltzeko prestakuntza ematea</li> </ul>
HONDAKINAK (6)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bezeroek hondakinak sailkatzea.</li> <li>• Hondakin arriskutsuak.</li> <li>• Hondakinak sailkatzea.</li> <li>• Koipeak eta olioak deuseztatzea.</li> <li>• Hondakinak garraiatzea.</li> <li>• Erabili eta botatzeko produktuak.</li> </ul>
BESTE ZERBITZU BATZUK (1)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garraio publikoa.</li> </ul>
KUDEAKETA OROKORRA (8)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mantentze lan eta berrikuste orokorrak.</li> <li>• Galdararen mantentze lana eta berrikustea.</li> <li>• Politikak eta jardura plana prestatzea.</li> <li>• Langileen prestakuntza.</li> <li>• Bezeroentzako informazioa.</li> <li>• Energia eta ur kontsumoari buruzko datua.</li> <li>• Beste datu batzuk biltzea.</li> <li>• Etiketa ekologikoan jasotako informazioa.</li> </ul>

# AKELARRE



# JAUREGUI



ZERUPE

hotel

zerupe



IMAZ



**ARBE**



**LETE LANDA-ETXEA**



# EKOTURISMO KLUBA

Espainiako Ekoturismo Elkarte (AEE) Espainiako Ekoturismo Kluba kudeatzen duen erakundea da. Klub hori 2010etik aurrera Turismoko Estatu Idazkaritzak babesten duen turismo produktuen klubetako bat da. AAE irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, gune babestuetan turismo jasangarria sustatzeko sortua. Ekoturismo Kluba ekimen aitzindaria da, naturagune babestuetan ekoturismoko esperientziak eskaintzen dituena, bidaiariari tokiko garapenari eta biodibertsitatearen kontserbazioari egiten dion ekarpena bermatuz.

Gaur egun, 27 helmuga eta ia 700 enpresa biltzen ditu. Horiek guztiek, SoyEcoturista markaren pean, garapen jasangarriaren aldeko konpromisoa hartu dute. Markaren barruan daude naturaguneetan kokatutako turismo arloko enpresaburuen elkarteak, naturaguneak kudeatzen dituzten entitateak, administrazio publikoak, berrikuntza turistiko eta teknologikoko entitateak eta enpresak, eta kontserbazioarekin eta tokiko garapenarekin konpromisoa duten turismo enpresak.

Hauek dira klubaren helburu nagusiak:

- Benetako ekoturismoko helmugak, enpresak eta esperientziak sustatzea, eta horiek merkaturatzen laguntzea, nazioan eta nazioartean.
- Klubeko helmugen kudeatzaileei, turismoko enpresaburuen elkarteei eta Kluba osatzen duten enpresaburuei laguntza tekniko, bidelaguntza eta prestakuntza eskaintzea
- Klubaren parte diren helmugen eta enpresen sareko lana sustatzea.

**Erakunde arduraduna:** Espainiako Ekoturismo Elkarte (AEE).

**Esparrua:** Espainia.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Bai, Turismo Ostatueta Zerbitzuetan (EBAO L 102, 2003-04-24koa) sartzen dira, halaber, jardueren enpresak eta helmugak.

**Ziurtagiria:** Europako Gutunean oinarrituta, SoyEcoturista katalogoan erregistratzen da. Berrikustea: 3 urtean behin aztertzen eta berritzen da betetzeko konpromisoa (berritze plana).

**Kostua:** Bai, aldakorra.

**Prozesua:** Turismoko Estatu Idazkaritzak (SETUR) bultzatzen du, autonomia erkidegoen bidez (ingurumen eta turismo arloko administrazioak). Espainian, AEEen elkartutako sektore pribatua da produktu klub honen kudeatzailea, eta Natur Parkeen Erakunde Autonomoak (OPNA) babesten du, CENEAMen bidez. Euskal Autonomia Erkidegoan, funtsezko eragileak dira Euskal Kostaldeko Geoparkearekin eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbarekin bat egiten duten helmugen kudeatzaileak, baita Nekatur eta Aktiba elkarteak ere, beren enpresa bazkideak dinamizatzen dituztenak eta estaldura ematen dietenak, Espainiako Ekoturismo Klubean.

**Adierazle sistemaren laburpena:** Hasteko, Basquetourren kalitate programaren batean ere parte hartu behar dute.

Nahitaezko 4 baldintza, dagokien adierazleekin, enpresa mota guztientzat, eta berariazko 3 baldintza ostatu enpresentzat.



Espainian, turismo enpresek baldintza hauek bete behar dituzte Ekoturismo Klubean sartzeko:

- Enpresa GUZTIETARAKO nahitaezko irizpideak (4), dagozkien adierazleekin.
- "Ostatuak" tipologiarako berariazko irizpideak (3).

Horrez gain, kontuan hartzen dira: jarduerak, jatetxeak, nekazaritzako elikagaien industria (bisita zerbitzuarekin), merkataritza eta baliokideak eta bidaiaria agentziak

<p>Enpresen baldintzak (I) EREMU BABESTUAREKIKO ETA HELMUGAREKIKO LOTURA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eremu babestuko eta helmugako jarduerak ezagutzen ditu eta berritasunen berri badu. Eremu babestuak eta bestelako entitate batzuek sustatzen dituzten lan mahaietan eta/edo ekitaldietan parte hartzen du.</li> <li>• Bezeroei eremu babestuari eta helmugari buruzko informazioa emateko protokoloa.</li> <li>• Helmuga, oro har, eta eremu babestua bereziki, bisitatzeko informazio materialak.</li> <li>• Ingurumen jardunbide egokiak sustatzen ditu eremu babestua bisitatzean.</li> <li>• Babestutako eremuarekin eta helmugarekin lotutako gaiet buruzko aldizkako prestakuntza, natur balioen, kultur balioen, lurraldearen erabileren eta paisaiaren, tokiko tradizioen eta produktuen eta abarren inguruan.</li> </ul>
<p>Enpresen baldintzak (II) SUSTAPEN ARDURATSUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bezeroei enpresaren ingurumen neurrien berri ematen die: web orria, erreserba baieztatzeko mezua, edo beste material batzuk.</li> <li>• Sustapen materialek babestutako eremuari buruzko informazioa biltzen dute: ez dira erabiltzen ingurumenean eragina izan dezaketen jardueren irudiak, eremu babestuaren izaera hauskorra azpimarratzen dute eta bisitatzeko den ingurunearekiko errespetuz portatzeko gomendioak ematen dituzte.</li> <li>• Bezeroen artean jarduera gidatuak sustatzen ditu, tokiko enpresek eskaintzen dituztenak edo naturagune babestuak berak eskaintzen dituenak (erabilera publikoko zerbitzuak).</li> </ul>
<p>Enpresen baldintzak (III) ONDAREA KONTSERBATZEKO EKARPENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan egiten duen lurraldean biodibertsitatea kontserbatzearen aldeko ekintzak garatzen ditu edo horietan parte hartzen du (GKE bateko bazkidea, boluntarioa, kontserbazio proiektuei laguntzea, etab.).</li> <li>• Bezeroei hain sentiberak eta masifikatuak ez diren tokiak gomendatzen dizkie, bereziki bisitari gehien dauden garaietan.</li> </ul>
<p>Enpresen baldintzak (IV) TOKIKO GARAPENARI LAGUNTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko zerbitzu hornitzaileak lehenesten ditu (mantentze zerbitzuak, gestoria, garbiketa, etab.) eta, hala den neurrian, ingurumena errespetatzen dutenak.</li> <li>• Artisanu manufakturako edo nekazaritzako elikagaien fabrikazioko prozesuak non ikus ditzaketen azaltzen die bezeroei.</li> </ul>
<p>OSTATUETARAKO BERARIAZKO BALDINTZAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Establezimenduan lurraldeari buruzko informazio praktikoa eskaintzen da.</li> <li>• Gosaria bezeroaren ordutegietara egokitzen da goizeko jardueraren bat egiten denean (fauna behatzea, adibidez), eta tokiko produktuak eskaintzen ditu, erabilera bakarreko praktikoetan ontziratuta ez daudenak.</li> <li>• Bezeroen artean establezimenduaren inguruko tokietara bisitaren bat sustatzen du, ibilgailu pribatua erabili beharrik izan gabe. Informazio materiala du.</li> </ul>



# TURISMOAREN KODE ETIKOA

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren helburua da funtsezko printzipio batzuk ezartzea Euskadiko turismo eragile guztiek erantzukizuna eta jasangarritasuna eguneroko jardunean txertatzeko, oinarrizko printzipio gisa errespetua eta elkar ulertzeko ekarpena hartuta.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoak Turismoaren Mundu Erakundeak garatu zuen Munduko Kode Etikoaren printzipioak egokitzen ditu, baita Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak ere. Gainera, gure lurraldearen berezitasunak eta gure kulturaren berezko elementuak gehitu dira. Euskadiko Turismoaren Kode Etiko honetan ezartzen diren printzipioak ezin dira lortu gure lurraldeko turismo eragile guztien lankidetzarik eta erantzukizun partekaturik gabe. Horregatik, turismo eragile nagusiek helburu komun hori lortzeko jarraitu behar dituzten portaera jarraibide batzuk aurkezten ditu: turismoaren jarduna kohesionatzea, errespetua eta elkar ulertzea turismo arduratsu eta jasangarriaren ardatz nagusiak izan daitezen.

Entitate sinatzaileek Euskadiko Etika Turistikoaren Erregistroa osatzen dute. Erregistroa kudeatzea eta eguneratzea Euskadiko Turismoaren Etika Batzordearen ardura izango da. Entitateek tokiko kultura eta tradizioa eta kultur ondareko elementuak errespetatzeko eta zaintzeko konpromiso garrantzitsua hartzen dute. Konpromiso hori pizgarriekin lotuta egongo da, tokiko komunitateak turismo jarduerekin elkartu daitezen eta jarduera horien onura ekonomikoak, sozialak eta kulturalak jaso ditzaten, bereziki enplegua.

Turismo jarduerako eragileen ahaleginak jardunbide egokiak sustatzeko erregistro batean jasoko dira. Gainera, Autonomia Erkidegoko administrazioak turismo jasangarria eta arduratsua sustatzera bideratzen dituen ekimenetan ere izango da haien berri.



**Erakunde arduraduna:** Basquetour (Turismoaren Euskal Agentzia - Basquetour).

**Esparrua:** Lurraldekoa/Autonomikoa.

**Ostatueterako berariazko aitortza:** Ez, turismo entitateak.

**Ziurtagiria:** Euskadiko Turismoaren Kode Etikoari atxikitzeko konpromisoa (Etika Turistikoaren Erregistroa).

**Berrikustea:** Parte hartzeko ziklo bakoitzean aplikatu behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea urtero.

**Kostua:** Ez.

**Prozesua:** Basquetourren bidez aplikatzen da. Agentziak prozesuaren aholkularitza eta laguntza ematen ditu, eskualde eta hirietako turismo kudeaketako erakundeen laguntzaz (TKE).


**Adierazle sistemaren laburpena:** 8 printzipio, guztira 36 lan ildo zehatzekin.



Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa Turismorako Munduko Kode Etikoaren egokitzapena da, gure kulturaren eta nortasunaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta egina. Era berean, Garapen Jasangarrirako 2040 Agendan zehaztutako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak, Turismoaren Mundu Erakundearen Turismorako Munduko Kode Etikoa, eta ST+20 Turismo Jasangarrirako Munduko Gutuna ere hartzen ditu kontuan

<p><b>TURISTAK ELKAR ULERTZEN LAGUNTZEA ETA ERRESPETATZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aniztasuna errespetatzea, haren aberastasuna aitortuz.</li> <li>• Helmugako berezitasunekin eta tradizioekin bat etorriko diren eta bertako legeak eta ohiturak errespetatuko dituzten turismo jarduerak sustatzea.</li> <li>• Bisitan iristen diren turistak, haien bizimodua, gustuak eta igurikimenak ezagutzen eta errespetatzen ikastea.</li> <li>• Turisten eta bisitarien eta haien ondasunen babesa ziurtatzea.</li> <li>• Bisitariak bisitatzeko duten herrialdeko legeen aurka aritzea saihestea.</li> <li>• Abiatu aurretik, bisitatu nahi duten herrialdearen ezaugarrien inguruko informazioa biltzea</li> </ul>
<p><b>BERDINTASUNA, INKLUSIOA ETA ANIZTASUNAREKIKO TOLERANTZIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismoa garapen indibidual eta kolektiborako bitarteko pribilegiatu gisa ulertzea eta praktikatzeko.</li> <li>• Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzea eta giza eskubideak sustatzea.</li> <li>• Gizakien esplotazio mota guztiei aurre egitea, edozein modutan, batez ere sexuari dagokionez, eta are gehiago haurrei eragiten dienean.</li> <li>• Erlijioak, osasunak, hezkuntzak, trukeak eta abarrek eragindako joan-etoerriak sustatzea.</li> <li>• Irakaskuntzako ikasketa programetan turismoko trukeen balioa eta haren onura ekonomikoak sartzen laguntzea.</li> </ul>
<p><b>JASANGARRITASUNA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurumena eta natur baliabideak babestea.</li> <li>• Natur baliabideak aurrezteko ahalbidetzen duten garapen turistikoko modalitate guztiak bultzatzea eta indartzea.</li> <li>• Turisten eta bisitarien mugimenduak denboran eta espazioan banatzen saiatzea.</li> <li>• Ekosistemek eta dibertsitate biologikoak osatzen duten natur ondarea babestea, eta fauna eta basoko flora zaintzea.</li> <li>• Naturari lotutako turismoa eta ekoturismoa bereziki aitortzea.</li> </ul>
<p><b>TOKIKO TRADIZIOA ETA KULTURA SUSTATZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko produktuak eta zerbitzuak sustatzen direla zaintzea, ingurunearen kontserbazioa eta garapen jasangarria bultzatzeko jokabide gisa.</li> <li>• Tokiko komunitateak turismo jarduerekin lotzea.</li> <li>• Turismo politikak bizi maila hobetzen laguntzeko antolatzea.</li> <li>• Arreta berezia jartzea eremu ahuletako behar zehatzei.</li> <li>• Turismo garapenerako proiektuen eragina aztertzea.</li> </ul>
<p><b>GIZATERIAREN ONDARE KULTURALA ZAINZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondare baliabideen eskubideak eta betebeharrak bermatzea.</li> <li>• Ondare artistikoa, arkeologikoa eta kulturala errespetatzea eta babestea.</li> <li>• Interes kulturalako gune eta monumentuek sortutako baliabideak ondare hori mantentzeko eta babesteko inbertitzea.</li> <li>• Jarduera turistikoa kultur eta artisau ekoizpen tradizionala garatzeko antolatzea.</li> </ul>
<p><b>BIKAINTRASUNA ETA PROFESIONALITASUNA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eragileei bikaintasunerako tresnak ematen zaizkiela zaintzea.</li> <li>• Euskal Turismoaren 2030erako Plan Estrategikoa betetzea, hazkunde jasangarria bermatuz, prestakuntzari eta lehiakortasunari dagokionez.</li> </ul>
<p><b>PERTSONEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismoa atsedenerako eta aisialdirako eskubidearen barne ulertu behar da.</li> <li>• Familiaren, gazteen, adinekoen eta premia bereziak dituzten pertsonen turismoa sustatzea.</li> <li>• Merkatarien eta artisauen bizimoduak errespetatzea (bidezko prezioa).</li> </ul>
<p><b>SEKTOREKO LANGILEEKIKO ETA ENPRESABURUEKIKO</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileen oinarriko eskubideak bermatzea.</li> <li>• Hasierako eta etengabeko prestakuntzarako eskubidea eta betebeharra ziurtatzea.</li> <li>• Lanbideko jarduerarako eskubidea aitortzea, legediaren arabera eta ahalik eta murrizketa txikienekin.</li> <li>• Nazioarteko truke esperientziak erraztea.</li> <li>• Multinazionalen nagusitasuneko posizioaren gehiegikeria saihestea.</li> <li>• Igorleen eta hartzaileen enpresen artean modu orekatuan lankidetzan aritzea.</li> </ul>

# SAGARLORE



# ABARAXKA HOSTEL



# HOTEL B&B



# EGONA APARTAMENTUAK



# MARTIAMUNO LANDETxea



# BESTE EKIMEN BATZUK



## ZERO PLASTIK HOTELAK, APARTAMENTUAK ETA ETXEBIZITZA TURISTIKOAK

**Erakunde arduraduna:** Donostia Turismoa eta Donostiako Udala.

**Esparrua:** Tokikoa (nahiz eta antzeko ekimen globalak ere badiren).

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Berariaz hotel, apartamentu eta etxebizitza turistikoetarako.

**Ziurtagiria:** Ez, baina kanpoko ziurtagiriak lortzen laguntzen du.

**Berrikustea:** Parte hartzaileek banakako diagnostikoa eta neurrien proposamena lortzen dute, hondakinak murrizteko eta kudeaketa hobetzeko.

**Kostua:** Ez

**Prozesua:** Gaur egun itxita dago. Gutxienez eskatzeko, behar bezala sailkatu behar dira sortzen dituzten hondakin guztiak, iturriko ura eskaini behar da eta beste plastikozko ontzi batzuen hondakinak murriztu behar dira (amenities-ak).

**Adierazle sistemaren laburpena:** 5 lan arlo: Kudeaketa orokorra (8 adierazle), Kontsumo arduratsua (5 adierazle), Hondakinen prebentzioa (10 adierazle), Gaikako hondakin bilketa (3 adierazle) eta Prestakuntza, informazioa eta komunikazioa (4 adierazle).



## DONOSTIA ZAHUKETARIK GABE

**Erakunde arduraduna:** Donostiako Udaleko Ingurumen Zuzendaritza.

**Esparrua:** Bertakoa.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Ez, nahiz eta hotelako jatetxeak parte hartu.

**Ziurtagiria:** Udalak bereizgarri bat ematen die baldintza batzuk betetzen dituzten establezimenduei, bistan jartzeko.

**Berrikustea:** Bereizgarria lortzeko 4 baldintzak, behintzat, bete behar ditu jatetxeak.

**Kostua:** Ez.

**Prozesua:** Baldintza horiek betez gero, Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzara jo daiteke.

**Adierazle sistemaren laburpena:** Baldintzak dira: hondakin frakzio guztiak ondo bereiztea; janik alferrik ez galtzeko balio duen neurri bat, behintzat, hartzea; iturriko ura doan eskaintzea; hartutako prebentzio neurriak erabiltzen erakustea langileei.



### GIPUZKOAKO BORONDATEZKO KARBONO FUNTSA

**Erakunde arduraduna:** Naturklima, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren menpe.

**Esparrua:** Lurrealdekoa.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Ez, edozein enpresa mota.

**Ziurtagiria:** Ez, aitopen publikoa.

**Berrikustea:** Karbono aztarnaren neurketatik abiatzen da (gutxieneko irismena: 1 eta 2) elkarren segidako 12 hilabeteko aldi baterako, alegia, urte natural baterako.

**Kostua:** Konpentsatu beharreko CO2 tonaren prezioa 10,5 €-koa da. Dohaintza moduan egiten da (zerga pizgarriak jasotzeko aukera egon daiteke).

**Prozesua:** Naturklimak kudeatzen du, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren barruan.

**Adierazle sistemaren laburpena:** Adierazleak ematen duten informazioaren arabera sailkatzen dira: aztarnen erregistroa (R, 11 adierazle), konpentsazio proiektuak (PC, 9 adierazle), xurgatzea (PA, 13 adierazle), egokitzea, erresilientzia eta funtzio aniztasuna (PARM, 9 adierazle).



Green Key

### GREEN KEY / LA LLAVE VERDE

**Erakunde arduraduna:** FEE (Foundation for Environmental Education) ADEAC (Asociación de Educación Ambiental y del Consumidor)

**Esparrua:** Nazioartekoa eta nazionala.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Berariaz hotel eta kanpinetarako.

**Ziurtagiria:** Ekintza Plana ezartzen duen ziurtagiria (saria) da.

**Berrikustea:** Urtean behin. Ikuskapen-bisita bigarren urtean eta gero bi urtean behin..

**Prozesua:** 11. Programan izena ematea eta dagokion kuota ordaintzea. 2. Galdetegia eta dokumentazioa aurkeztea. 3. Ikuskatzaile kualifikatuen bisita. 4. Hautagaitza nazioarteko koordinaziora bidaltzea. onesteko.

**Adierazle sistemaren laburpena:** 13 gai-arlotan biltzen dira: 1. Ingurumen kudeaketa. 2. Langileen parte-hartzea eta inplikazioa. 3. Bezeroei informazioa ematea. 4. Ura. 5. Higienea eta garbiketa. 6. Hondakinak. 7. Energia. 8. Elikadura eta hornitzaileak. 9. Barrukoak. 10. Kanpokoak. Berdeguneak eta aparkalekuak. 11. Ingurumen jarduerak. 12. Administrazioa. 13. Erantzukizun sozial korporatiboa. Tokiko ondarea errespetatzea.



### TURISMO JASANGARRIAREN MUNDUKO KONTSEILUAREN IRIZPIDEAK (GSTC)

**Erakunde arduraduna:** Global Sustainable Tourism Council.

**Esparrua:** Nazioartekoa.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Hotelentzat da. Gainera, beste irizpide batzuk zehazten dira tour operadoreentzat, helmugentzat, negozio bidaiantzat (Corporate and Business Travel) eta bidaiari arduratsuentzat. Turismo Ostatuako Zerbitzuak (EBAO L 102, 2003-04-24koa).

**Ziurtagiria:** GSTCk akreditatu egiten du, baina ez du ziurtagirik ematen, gauza desberdinak dira. Ziurtapen Erakundeak akreditazioa ematen du, Assurance Services Internationalen (ASI) bidez: Bureau Veritas, Control Union, United Certification Systems Limited, Vireo Srl.

**Berrikustea:** Irizpideak 3-5 urtean behin berrikusten dira.

**Prozesua:** Ziurtapen erakunde bat aukeratu behar da, ziurtatze prozesuen kalitatearengatik nabarmentzen diren erakunde akreditatuen zerrendatik. Eta GSTCren eskakizun guztiak betetzeko ziurtapen erakundearekin lan egin ondoren, ziurtapen erakunde akreditatu baten ziurtagiria jasoko da.

**Adierazle sistemaren laburpena:** 4 atal (gobernantza, tokiko komunitatea, kultur ondarea eta ingurumena), 37 azpiataletan eta 160 adierazletan banatuta.



## HOTEL CARBON MEASUREMENT INITIATIVE (HCMI)

**Erakunde arduraduna:** Greenview, Sustainable Hospitality Alliance, WTTC, Tourism Declares a Climate Emergency eta PATArekin elkarlanean, **zenbait hotel konpainia garrantzitsuren ordezkarien aholku taldearekin batera.**

**Esparrua:** Nazioartekoa.

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** Hotelentzat da berariaz.

**Ziurtagiria:** Ez.

**Berrikustea:** 3 urtean behin aztertzen eta berritzen da betetzeko konpromisoa (berritze plana). Prozesua: Prozesuak bost fase ditu: a) Oinarrizko lerroa definitzea; b) Isurien iturriak zehaztea; c) Mugarriak ezartzea; d) Isuriak kuantifikatzea eta horien berri ematea; eta e) Balio katean duten lekua kontuan hartzea.

**Adierazle sistemaren laburpena:** planak gomendio hauek egiten ditu:

- o 2025erako: Konpromisoa hartu plan batekin eta zure aurrerapena kuantifikatzeko gai izan
- o 2030erako: energia berriztagarriak eta/edo karbono-konpentsazioak erabiltzea
- o 2035erako: egin ezazu zure balio-katea iraunkorra izan dadin
- o 2040rako: Zero emisio garbi
- o 2050erako: Benetako zero garbia lortzea



## PASSIVE HOUSE o PASSIVHAUS

**Erakunde arduraduna:** Passive House Institute - PHI (Darmstadt, Alemania)

**Ezparrua:** Nazioartekoa

**Ostatuetarako berariazko aitortza:** ERAIKUNTZARAKO berariazkoa, energia-eraginkortasunerako, erosotasunerako eta barne-airearen kalitaterako nazioarteko estandarra da, energia-kontsumo oso txikiko edo nuluko ERAIKINAK ERAIKITZEKO.

**Ziurtagiria:** Passive House bi ziurtagiri mota daude, obra berriko eraikinetan (Passive House ziurtagiria) eta lehendik dauden eraikinetan (EnerPHit ziurtagiria duen zaharberritzea).

**Prozesua:** Normalean, arkitektura-estudioen edo aholkularitza espezializatuen bidez egiten da institutuak berak ematen ditu, hainbat herrialdetan. Erakundeak bere langileak ere prestatzen ditu: Passivhaus Designer/Consultant.

**Adierazle sistemaren laburpena:** Irizpide nagusiak: 1. Isolamendu termiko. 2. Prestazio handiko leiho eta ateak. 3. Zubi termikorik ez izatea. 4. Hermetikotasuna airean. 5.

Aireztapen mekanikoa eta beroa berreskuratzea. Bost irizpide horiek bete ondoren, beste bi irizpide aztertuko dira: 6. Eguzki-babesak. 7. Energia berriztagarriak..

# Onurak

Jasangarritasunarekin lotutako beste gai batzuekin gertatzen den bezala, mota horretako neurriek ostatuan eta helmugan dituzten onurek edo eragin positiboek hainbat dimentsio hartzen dituzte. Klima aldaketa ingurumeneko erronka bada ere, konpromiso ekonomikoari, ingurunea zaindu eta errespetatzeari eta gizarte ongizatearekiko erantzukizunari ere erantzuten dio.



Ingurunearen jasangarritasuna hobetzen du, ikuspegi globaletik, produktu eta zerbitzu errespetuzkoagoak eta arduratsuagoak erabiliz. Hondakinek eta kutsadura hidrikoak eta akustikoak behera egiten dute, eta, oro har, erregaiaren eta energiaren kontsumoak ere bai. Horrela, zeharka, berotegi efektuko gasen isuriek ere behera egiten dute. Horrek errazten du baliabideak zentzuz erabiltzea edo ekonomia zirkularreko printzipioak ezartzea eta, epe luzera, airearen kalitatea, biodibertsitatea eta abar hobetzea.



Enpresan eredu jasangarriagoak garatzearen aldeko apustua egiteak ez du esan nahi barne onurarik egongo ez denik. Orokorrean, neurriek produktibitatea handitzen eta kostu ekonomikoak murrizten dituzte, baliabideen kudeaketa efizientea ahalbidetzen dutelako eta, horrenbestez, emaitza ekonomiko hobeak lortzea, epe ertain eta luzera kostuak nabarmen murriztuta.



Zeharka, eredu arduratsuagoak erabiltzeak erakundearen gizarte erantzukizuna garatzen du, baita lan ingurunean ere. Horrela, laneko giro produktiboagoak sor daitezke, langileen efizientzia areagotu eta haien gogobetetasuna eta emaitzak hobetu. Horren guztiaren ondorioz, tokiko enplegua eta ekonomia sustatzeaz gain, langile guztiek enpresaren balioekiko eta, bereziki, jasangarritasunarekiko, duten konpromisoa handitzen da.



Enpresaren irudia eta kokapena hobetzen ditu. Bezeroen kontzientzia handitu egiten da eta kontuan hartzen dute ingurunean duten eragina. Horrela, balio pertsonalak, sozialak eta ingurumenekoak sustatzen dira. Gainera, neurri horiek erakundearen gardentasun handiagoa dakarte, eta horrek ingurumenari lotutako irudi korporatiboa hobetzen du.



Neurri horiek jasangarritasunari lotutako lege eta araudi berriak betetzea errazten dute eta ingurumen, ekonomia eta gizarte mailan erregulazio handiagoak aplikatzen dira horrela. Ondorioz, ikuspegi hori hartzeak abantaila ematen du legeria betetzeko orduan



Klima aldaketaren aurka egiteko neurriak eta ekintzak eta eredu jasangarriagoak hartzeak enpresa erakargarri egiten dute bezeroentzat ez ezik, baita profesionalentzat eta inbertsiogileentzat ere, gai baitira etorkizuneko proiektzioa izango duten ereduak antzemateko. Azken batean, produktuen kalitatea hobetzen da eta horrek, epe luzera, interes taldeen konfiantza potentziala handitzen du, tokiko elkarrekeko edo gizarte motibazioa dutenekiko lankidetzara errazten du eta erabakiak hartzerakoan publiko orokorraren iritziak eta interesak islatzen laguntzen du

# Oztopoak

Asmo onak eta ahaleginak ugariak diren arren, enpresek harantzago joatea eragozten dieten oztopoak aurkitzen dituzte. Alegia, errazagoa da esatea egitea baino. Horrek agerian uzten du muga edo oztopo ugari daudela.

Oro har, esan daiteke ez dagoela behar besteko presaren edo premiaren zentzurik. Pandemiaren testuinguruak ere ez du lagundu, eta isuriak murrizteko edo efizientzia hobetzeko lehentasunak bigarren mailan gelditu dira, berehalako beste erronka batzuen aurrean, esate baterako, diru sarrerak handitzea.

Bigarrenik, ezagutzarik edo hartarako sarbiderik ez edukitzearen oztopoa aipatu behar dugu. Horri gehitu behar zaio, askotan, erabakiak pertsona desberdinek hartzen dituztela. Esate baterako, higiezinaren arduraduna eta ostatuaren kudeaketaren arduraduna ez dira berdinak izango. Jabeak eta kudeatzaileak desberdinak badira, ekintzekiko lerrokatzea eta aurrekontua bera ere kontu sail edo diru iturri desberdinetatik etor daitezke.

Ezagutzarekin lotuta, enpresa gutxi egiten dituzte edo egin ditzakete neurketak. Izan ere, ez da hain erraza edo ez dago hainbeste eredurik. Gainera, zer neurtu behar den eta nola jakiteko adostasunik edo normalizaziorik ere ez dago. Hain zuzen ere, oztopo zabalduenetako bat da datu batzuen erregistro sistematikoa edo desagregatua egiteko zailtasuna. Horrek datuen kalitate txarra dakar. Enpresen behar eta gaitasun zehatzetara egokitutako neurketa tresnak behar dira.

Dauden metodologiak eta tresnak, askotan, beste sektore batzuetatik datoz, eta ez diete erantzuten turismo sektoreko erakundeen beharrei, bereziki enpresa txiki eta ertainei. Ildo beretik, tresna guztiak ez dira sarbide librekoak edo ez daude diseinatuta erabilera orokorrerako (adibidez, karbono aztarnen kalkulagailuak). Horren ondorioz, askotan beharrezkoa izaten da modu profesionalean horretan aritzen diren aholkulariengana eta ziurtatze enpresetara jotzea.

Egiturazko hesi horiez gainera, koiunturazko beste hesi batzuk ere badira, horien artean, aipatutako ekintzak abian jartzeko behar diren baliabideen eskuragarritasuna.

- Finantza baliabiderik edo kapitaleko sarbiderik ez edukitzea. Erregaien edo materialen kostu handia.
- Isurien murrizketari ematen zaio lehentasuna eta neurketa saihesten da; horregatik, ez dira jabetzen duten eraginaz.
- Tresna jakin batzuk eskuratzeko aurrekontu txikiak: "tresnak kostu jakin batean saltzeko diseinatzen direnean, hori ordaintzeko aukera dutenen beharrak asetzeko diseinatzen dira".
- Azpiegituren mugak (eraikin babestuetan dauden hotelak)

*Gaur egungo ezarpen profilen, hautemandako oztopoen eta aplikazio neurriei ematen zaien garrantziaren arabera, ostatuak hiru "mentalitatetan" sailka daitezke (EY, 2021).*

*a) Ikusleak (spectators), gutxi gorabehera merkatuaren % 32: ez dute modu aktiboan bilatzen jasangarritasunaren arloko helbururik eta sektoreko ekimen estandarrak aplikatzen dituzte, edo neurriak hartu dituzte soil-soilik kostuak aurrezteko.*

*b) Parte hartzaileak (partakers), merkatuaren erdia baino gehiago, % 61: neurriak hartzeko prest daude, ostatuaren erakargarritasunari kalte egiten ez badiote, horregatik, ekintzak egingo dituzte, baldin eta epe luzeko interesei kalterik egiten ez badiote.*

*c) Aitzindariak (frontrunners), % 7 inguru: jasangarritasuna dute filosofia eta klima aldaketaren aurkako borroka beren proposamenaren erdi-erdian jartzen dute. Beraz, proaktiboak dira edozein neurri motaren aurrean.*

*Hiru mentalitateek bat egin dezakete ezarpenaren bidearen faseetan.*



# Gomendioak

Turismo sektorea, oro har, eta ostatuak, bereziki, ereduaren eraldaketa prozesua bizitzen ari dira eta klima aldaketaren aurkako ekintzekiko konpromiso handiagoa ari dira hartzen.



Borondatezkoak izanik, gaur egun ez dago akreditazio 'perfekturik'; aitzitik, ostatu bakoitzak, bere izaera kontuan hartuta, aztertu beharko du zein akreditazio egokitzen den ongien bere jarduera, eskari eta beharretara.

Oztopoak oztopo eta zailtasunak zailtasun, klima aldaketara egokitzeko eta haren eraginak arintzeko ekintzak abian jartzeak dimentsio askotako onurak dakartza epe labur, ertain eta luzera. Deskarbonizazio prozesuak eta eredu jasangarriagoetarako trantsizioa geratzeko etorri dira.

Ziurtagiriek edo akreditazioek, berez, ez lukete helburu izan behar, baizik eta klima aldaketaren aurkako ekintzak egiteko modu bat, etengabeko hobekuntzari begira jarriko gaituena eta alderdi interesdun guztiak barne hartuko dituen. Trantsizio horretan egon daitezkeen abiadura desberdinak identifikatzea eta ongien egokitzen dena identifikatzea izan daiteke arrakastaren gakoetako bat.

Ekintzek eta akreditazioek enpresei aukera ematen diete gero eta murriztaileagoa den legeriari aurre egiteko, zero isuri garbi lortzera bideratua. Horrela, trantsizio horretan egokitzeko erraztasunak ematen dituzte.

Ostatu sektoreak, oro har, eta inplikaturako enpresa bakoitzak aukera dute klima aldaketaren aurrean egokitzeko eta arintzeko neurriak hartzerakoan erreferente izateko, karbono aztarnan duen eraginagatik askoren jomugan dagoen sektore honetan

Jarduerak ingurunean duen eraginaren neurketara eta monitorizatzen hurbiltzea ezinbestekoa da ildo horretan erabakiak hartzeko. Lehen diagnostiko hori funtsezkoa izango da, besteak beste, tresnak hautatzeko, langileen inplikazioa lortzeko edo aurrekontua arrazionalizatzeko.

Funtsezkoa da ekintza eta neurri horien helburuen balioa nabarmentzea, integratzea eta bezeroari jakinaraztea. Eragile guztien kontzientziazioa, baina batez ere bisitariarena, erabakigarria izango da prozesuan.

# Esker ona

## Ostatu elkarteak

- [Asociación de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa](#)
- [ASPAGI - Hoteles de Gipuzkoa](#)
- [APARTURE](#)
- [NEKATUR](#)
- [Asociación de Euskadi de Camping](#)

## Eskualdeak

- [Bidasoa](#)
- [Oarsoaldea](#)
- [Donostialdea](#)
- [Tolosaldea](#)
- [Urola Kosta](#)
- [Urola Erdia](#)
- [Urola Garaia](#)
- [Goierri](#)
- [Debabarrena](#)
- [Debagoiena](#)
- [San Sebastián Turismo](#)
- [Agencia Vasca de Turismo - Basquetour](#)

## Ostatu parte hartzaileak

- [Abaraxka Hostel](#)
- [Egona Apartamentos turísticos](#)
- [Gorosarri Landa-etxea](#)
- [Hotel Arbe](#)
- [Hotel Akelarre](#)
- [Hotel B&B Aeropuerto Donostia](#)
- [Hotel Jauregui](#)
- [Hotel Imaz](#)
- [Hotel Zerupe](#)
- [Koba Hostel](#)
- [Lete Landa-etxea](#)
- [Martiamuno Landa-etxea](#)
- [Sagarlore Etxea](#)

***Eskerrik asko klima aldaketaren aurkako borrokan egiten ari zareten ekarpenagatik eta ahaleginagatik***



## Harremanetarako

HUB Gipuzkoa Turismoa  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Camino Kalea, 1, 20004 - Donostia  
943 41 51 51  
[www.gipuzkoaturismoa.eus/es/hub](http://www.gipuzkoaturismoa.eus/es/hub)  
[info.hubturismoa@gipuzkoa.eus](mailto:info.hubturismoa@gipuzkoa.eus)

# Eranskina



- Koba Hostels (Donostia) (Certified)
- ABBA San Sebastian Hotel (Comunited)



- Gorosarri Landa-etxea (Eskoriatza)
- Ibarre Nekazalturismoa (Antzuola)
- Camping&Bungalow Zumaia
- Dolarea Hotela (Beasain)
- Hotel Akelarre (Donostia)
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Hotel Avenida (Donostia)
- Hotel Imaz (Segura)
- Zerupe Hotela (Zarautz)
- Lete Apartamentuak (Alkiza)
- Albergue Juvenil Ulia (Donostia)



- Perlakua Saka nekazalturismoa (Deba-Itziar)
- Arruan Handi nekazalturismoa (Deba-Itziar)
- Arriola Txiki nekazalturismo (Deba-Itziar)
- Santa Klara Nekazalturismoa (Zumaia)
- Goikola nekazalturismoa (Itziar)
- Lastur Aterpetxea (Deba-Itziar)
- Eleizondo Landetxea (Deba-Itziar)
- Gorosarri Landetxea (Eskoriatza)
- Camping Itxaspe (Deba-Itziar)
- Camping&Bungalow Zumaia
- Pensión Zumardi (Deba)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Hotel Flysch (Zumaia)
- Hotel Arbe (Mutriku)
- Arbela Apartamentuak (Aia)



- Hotel Arima (San Sebastián)



- Hotel Akelarre (Donostia)
- Hotel Sercotel Codina (Donostia)
- Hotel Distrito Oeste (Donostia)
- Koba Hostels (Donostia)
- Hotel Leku Eder (Donostia)
- Hotel Maria Cristina (Donostia)
- Olarain (Donostia)
- Hotel Lasala Plaza (Donostia)
- Hotel Zinema 7 (Donostia)



- Abarazka Hostel (Azkoitia)
- Altzibar Berri Landa-etxea (Urnieta)
- Apartamentos Bergaretxe Geltokia (Brinkola)
- Apartamentos Egona (Zarautz)
- Apartamentos Getaria (Getaria)
- Apartamentos Talaiamendi (Zarautz)
- Aranburu Landa-etxea (Zestoa)
- Arantzazu Aterpetxea (Arantzazu)
- Arrasate Hotela (Arrasate)
- Arraspiñe Nekazalturismoa (Astigarraga)
- Arregi Landa-etxea (Oñati)
- Arrieta Handi Landa-etxea (Zegama)
- Arriola Txiki nekazalturismo (Deba-Itziar)
- Arrixulo Aterpetxea (Oartzun)
- Arruan Handi nekazalturismoa (Deba-Itziar)
- ATeRIAN Holiday Homes (Zarautz)
- Atotxa Rooms (Donostia)
- Basque Stay - Vacation Apartments & Hotels (Zarautz)
- Berazadi Berri Hotela (Zarautz)
- Bide-Bide Hotela (Tolosa)
- Camping de Orio (Orio)
- Camping Itxaspe (Deba-Itziar)
- Camping&Bungalow Zumaia
- Cristina Enea Rooms (Donostia)
- Dolarea Hotela (Beasain)
- Eibarros Autocheck-in (Pensión, Eibar)
- Enbutegi Landa-etxea (Urnieta)
- Endañeta Berri (Zumaia)
- Errekalde Hotela (Lezo)
- Etxe Aundi Hotela (Oñati)
- FeelFree Rentals (Donostia)
- Goiznabar Nekazalturismoa (Hondarribia)
- Goxo-Goxo Landa-etxea (Errexil)
- Gran Camping Zarautz (Zarautz)
- Hotel Aguinaga (Usurbil)
- Hotel Aitana (Irun)
- Hotel Arbaso (Donostia)
- Hotel Atalaia (Irun)
- Hotel Avenida (Donostia)
- Hotel B&B Aeropuerto (Oartzun)
- Hotel BED4YOU San Sebastián
- Hotel BED4YOU ZURRIOLA
- Hotel Eceiza (Donostia)
- Hotel ETH (Irun)
- Hotel Gaintza (Zarautz)

- Hotel Imaz (Segura)
- Hotel Iturregi (Getaria)
- Hotel Jauregui (Hondarribia)
- Hotel K10 (Urnieta)
- Hotel Kanala (Deba-Itziar)
- Hotel Ordizia (Ordizia)
- Hotel San Prudencia (Getaria)
- Hotel Silken Amara Plaza (Donostia)
- Hotel Villa Antilla (Orio)
- Ibarre Nekazalturismoa (Antzuola)
- Iketxe Landa-etxea (Hondarribia)
- Iriarte Jauregia Hotela (Bidania-Goiatz)
- Izal Landa-etxea (Bergara)
- Jesuskoa Landa-etxea (Zumaia)
- Kaixo Apartaments (Zarautz)
- Katrapona Pensión (Getaria)
- Korteta Nekazalturismoa
- Larramendi Dorrea Hotela
- Lastur Aterpetxea (Deba-Itziar)
- Lete Apartamentuak (Alkiza)
- Lizolagoiena Nekazalturismoa (Asteasu)
- Maddiola Apartamentos Rurales (Orio)
- Martiamuno Landetxea (Zumarraga)
- Mirotxa Rooms & Apartaments (Orio)
- Montefrio Nekazalturismoa (Urnieta)
- Olarain Egoitza/Ostatu turistikoa
- Ormazabal Hotela (Bergara)
- Peluaga Nekazalturismoa (Oartzun)
- Pensión Altair (Donostia)
- Pensión Europa (Irun)
- Pensión Goiko Benta (Oñati)
- Pensión Karmentxu (Tolosa)
- Pensión Kursaal (Donostia)
- Pensión AB Domini (Donostia)
- Pensión San Martín (Donostia)
- Pensión Zumardi (Deba)
- Perlakua Saka nekazalturismoa (Deba-Itziar)
- Pikua Landa-etxea (Mutriku)
- Sagarlore Hotela (Astigarraga)
- Santa Ana Hotela (Arrasate)
- Saskarate Landa Etxea (Asteasu)
- Torre Zumeltegi Hotela (Oñati)
- Txindurri Iturri Nekazalturismoa (Deba-Itziar)
- Urkulu Landa-etxea (Aretxabaleta)
- Uxarte Pensioa (Arrasate)
- Villa Magalean Hotela (Hondarribia)
- Zerupe Hotela (Zarautz)
- Zubeltzu Torre Nekazalturismoa (Deba-Itziar)

